



**MUTILOAKO UDALA**

## **2020KO IRAILAREN 30EKO OHIKO BILKURA**

**LEKUA:** Mutiloako Udaletxeko Batzar Aretoa

**DATA:** Bi Mila eta hogeiko irailaren hogeita hamarrean.

**ALKATE-LEHENDAKARIA:** Iñaki Ugalde Alustiza.

### **BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:**

Asier Aguirre Murguiondo.

Erkuden Aguirre Arruabarrena.

Aitor de Astobiza Uriarte.

Miren Arantza Oiarbide Perez.

Iñaki Zabalo Echezarreta

### **EZ BERTARATUTAKOAK:**

Jule Aranburu Mariezkurrena

### **IDAZKARIA:**

Martin Iparragirre Mujika.

**BATZARRA:** Ohikoa

**DEIALDIA:** Lehenengoa

**HASIERA ORDUA:** Arratsaldeko 19:45etan

**HAMAIERA ORDUA:** Arratsaldeko 20:30etan.


## **GAI ZERREDA**

- **Aurreko bilkurako aktaren onarpena, hala badagokio: 2020ko uztailaren 27ko Ohiko Bilkurari dagokion akta.**

Aipaturiko akta aurkezten da Bilkura honetan onartzeko.  
Bozkatu ondoren, aho-batez onartuta geratu da.

- **Alkatetza ebazpenen berri ematea.**

Udal-kideei aurreko Bilkuratik hona igorritako alkatetza ebazpenen berri eman zaie:



## MUTILOA UDALA

- 12/2020 alkatetza ebazpena: Ordaintzeko faktura zerrenda.

Udal-kideak jakinaren gainean geratzen dira.

- **Errotatzoko erreformaren bigarren faseko lizitazioaren esleipena onartzeko proposamena.**

Egindako prozedurari buruzko informazioa eman da:

2020ko irailaren 15eko bileran honako erabakiak onartu ziren:

ENPRESA	ONARTUA
GOITU ERAIKUNTZAK S.L.	BAI
IPARRAGIRRE ERAIKUNTZA LANAK S.L.	BAI
INDENORT PV, S.L.VU	BAI
APLIBUR CONSTRUCCIONES	EZ (GARANTI EPEA SARTU DU 1 KARTAZALEAN)

Aho batez hartutako erabakiak:


Aplibur Construcciones enpresak aurkeztutako eskaintza ez onartzea, zeren eta egindako akatsa Kontratu Publikoaren Legeko 139. Artikuluan xedatutakoaren aurka doa, eta erabaki honen berri ematea.

Kartazalean balorazio teknikoari lotuta dagoen dokumentazioa zerbitzu teknikoei bidaltzea, dagozkion balorazioak egiteko.

### **2020KO IRAILAREN 24KO EKITALDI PUBLIKOA 2 ZENBAKIDUN KARTAZALAK IREKITZEKO:**

2 ZENBAKIDUN KARTAZALAK IREKI AURRETIK EMAN DA 1 GUTUNAZALETAKO BALORAZIOA (TXOSTEN TEKNIKOA ATXIKITZEN DA):

ENPRESA	BALORAZIOA GUZTIRA
GOITU ERAIKUNTZAK S.L.	12 PUNTU
IPARRAGIRRE ERAIKUNTZA LANAK S.L.	3 PUNTU
INDENORT PV, S.L.VU	12 PUNTU



## MUTILOA UDALA

Segidan 2 zenbakidun kartazalak ireki dira:

"2" GUTUNAZALETAKO PREZIOAK BEZ BARNE:

ENPRESA	PREZIOA/PUNTUAK
GOITU ERAIKUNTZAK S.L.	301.249,88/ <b>65 PUNTU</b>
IPARRAGIRRE ERAIKUNTZA LANAK S.L.	336.869,62/ <b>58,12 PUNTU</b>
INDENORT PV, S.L.VU	309.218,15/ <b>63,32 PUNTU</b>

"2" GUTUNAZALETAKO GARANTI-EPEAK: DENEK 5 URTE (10 PUNTU BAKOITZAK).

### GUZTIRA PUNTUAK:


ENPRESA	PREZIOA/PUNTUAK
GOITU ERAIKUNTZAK S.L.	<b>12+65+10= 87 PUNTU</b>
IPARRAGIRRE ERAIKUNTZA LANAK S.L.	<b>3+58,12+10= 71,12PUNTU</b>
INDENORT PV, S.L.VU	<b>12+63,32+10= 85,32 PUNTU</b>

Aho batez onartzen den proposamena:

Obrak Goitu eraikuntzak S.L. enpresari esleitzea proposatzen da.

Honekin batera, alkate jaunak adierazi du oraindik Madrileko diru laguntza konfirmatzeke dagoela, eta eztabaidatzen da esleipenarekin jarraitu edo ez diru laguntzaren konfirmazioa eduki arte, aho batez irizten da hobe dela 3 bat aste itxotea jakin arte ea konfirmatzen den diru laguntza, eta esleipena baldintza horrekin aktan jasota uztea, bera aho batez honako hau erabaki da:

**BAKARRA:** Errotatxoko erreformaren bigarren faseko lizitazioa Goitu eraikuntzak S.L. enpresari esleitzea baldintza honekin: Momentuz ez zaio jakinaraziko, eta hiru bat aste itxoingo da ea epe horretan konfirmazioa etortzen den. Konfirmatu ezean hiru aste barru berriro ere aztertuko da, eta erabakiko da zer egin.



## MUTILOAKO UDALA

- **Jose Miguel Arrondo Irastorza eta Mutiloako Udalak paso eskubidea errekonozitzeko sinatu beharreko kontratua onartzeko proposamena.**

Gai honi buruz, Jose Miguel Arrondo Irastorza jaunarekin adostutako kontratuaren berri eman da. Honako hau da bere edukia:

### **BILDU DIRENAK:**

**ALDE BATETIK:** Iñaki Ugalde Alustiza, Mutiloako Udaleko alkatea, eta ekitaldi honetarako behar bezala ahalmenuTa 2020ko irailaren 30eko Udal Osoko Bilkuran hartutako erabakiaren bitartez.

**BESTETIK:** Jose Miguel Arrondo Irastorza, adinez nagusia 72.444.756T NAN. zenbakiduna, eta helbidea Zeraingo Aizpea auzoko Txoistegi baserrian duena, bere izenean arituz.

Ekitaldi honetan parte hartzen duten bi alderdiek kontratu hau sinatzeko legezko ahalmena onartzen diote elkarri eta horretarako ondorengo,

### **ADIERAZI DUTE:**

#### **LEHENENGOA:**

Jose Miguel Arrondo Irastorza jauna, honako lursailearen jabea da Gipuzkoako Foru Aldundiko katastroan jasotakoaren arabera (1 eranskin bezala katastroko planoan atxikitzen da):

- 1) lursailaren izena: Erlategi ingurua; poligono.: 10- partzela 0018.  
Lursail horietan paso bat egokituta dago 1 eranskineko planoan grafiatzen den bezala. Paso hori egokitzeko lanak Udalak finantzatu ditu zati batean, eta beste zatia aurretik Jose Miguel Arrondo jaunaren aitak egokituta zeukan.

#### **BIGARRENA:**

Mutiloako Udala, honako lursailen jabea da Gipuzkoako Foru Aldundiko katastroan jasotakoaren arabera (2 eranskin bezala katastroko planoan atxikitzen da):

- 1) lursailen izena: Erlategi ingurua; poligono 10-partzelak: 17,19.

Lursail horietan bide bat egokituta dago 2 eranskineko planoan grafiatzen den bezala. Paso hori egokitzeko lanak Udalak finantzatu ditu.



## **MUTILOAKO UDALA**

### **HIRUGARRENA:**

Bi alderdiek interesa dute, aipaturiko partzeletan elkarri paso eskubidea aitortzeko.

### **LAUGARRENA:**

Dagozkion elkarrizketak izan ondoren, alderdiek paso eskubidea dokumentu honetan jasotzeko adostasun batera iritsi dira; hori dena kontuan hartuta alderdiek honako hau :

### **HITZARTZEN DUTE:**

### **LEHENENGOA:**


Bi alderdiek elkarri aitortzen diote paso eskubidea, eta horren arabera Jose Miguel Arrondo jaunak paso eskubidea izango du Mutiloako Udalak Erlategi inguruko poligono 10 eta 17,19 partzeletan duen pasotik, era berean Mutiloako Udalak paso eskubidea izango du Jose Miguel Arrondo jaunak Erlategi inguruko poligono 10 eta 0018 partzelan duen pasotik. Aitortutako paso hauek izango dira landaketak, pinuak ateratzeko, entresakak, matarrasak egiteko eta antzeko mendiko jardueretarako.

### **BIGARRENA:**

Paso eskubidearen epeari dagokionez muga gabea izango da. Akordio hau mantenduko da harik eta bi alderdietako batek bere lursaila saldu edo uztea erabakitzen duen arte, kasu horretan akordioa berriz negoziatzeko aukera izango da. Herentzi kasuan oinordekoak akordioa mantentzera behartuta egongo dira. Adosten den eskubideen kostua ekonomikoa ere bi kasuetan berdina denez, ez dio ezer zor batak besteari. Pasabidearen mantentze lanak beti ere pasoa erabili duenaren kontura izango da.

Eta hemen jasotakoarekin bat datozela ikusirik, kontratuaren bina ale sinatzen dituzte, ondorio bakar baterako, goian adierazitako leku eta egunean.

Gai aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartu da aurkeztutako kontratua, eta halaber sinatzeko ahalmena ematea alkate jauna den Iñaki Ugalde Alustiza jaunari.



## MUTILOA UDALA

- **3.000 eurotik goragoko fakturen onarpena.**

Ondoren adierazitako faktura hau aho-batez onartu da:

1	Iñatell zerbitzuak S.L.U.	14.873,32 euro (BEZ barne)
---	---------------------------	----------------------------

### GALDE-ERREGUAK

Ez daude.

Eztabaidatzeko gai gehiago ez dagoenez, Bilkura amaitutzat ematen da arratsaldeko 20:30ak direnean eta horren fede, nik idazkariak ematen dut.